

BISITAK ETA IBILALDIAK

Zatoz Karlismoaren Museora

karlismoaren Museoan (Estella-Lizarra)

Larunbata / 16.30etan eta 17.30etan.

Jarduera guztiak doakoak dira.

Leku guztiak bete arte.

Argibide gehiagotarako: www.museodelcarlismo.navarra.es

Oteiza Museoko Didaktika arduradun Aitziber Urtasunekin

Oteiza Museoak

Igandea / 12.00etan

Bilduma iraunkorraren eta Karlos Martinez B. eta Javier Arbizuren obraren arteko solasa.

Erakusketarako bisita, Oteiza Museoko Didaktika arduradun Aitziber Urtasunekin.

Doakoa, aurrez Museoko sarrera aurkeztuta.

Pasaporteak ¡Museatu! eta bidaiatu

Museoak eta bildumak

2018/04/20 - 2018/10/20

Bidaia bat prestatzea inoiz ez da hain erraza izan. Pasaporteak hiri eta herri berezietara txango motzak planifikatzea ahalbidetuko dizu eta arte garaikide, arte eder, arkeologia, etnografia eta pertsonaia bereziei buruzko museoetan esperientzia paregabeak bizitzeko aukera izango duzu. Anitzak eta kalitate onekoak diren bildumak eta testigantzak agertzen dituzten museo xarmangarriak. Eta hori guztia, Nafarroatik atera gabe.

Taldean edo familiarekin, bikotearekin edo bakarrik, hamahiru museo eta bilduma hauek zain dituzu haien bilduma eta jardueraz zurekin gozatzeko. Gainera, hiru baino gehiago bisitatzen badituzu, sariak lor ditzakezu.

Pasaporteak pertsonala eta/ edo familiarra da. Doakoa da eta hamahiru zentroetan eskuratu daiteke sarreran. Erakunde bakoitzaren zigilua bisita egindakoan eskuratuko da.

Katedraleko klaustroaren lana

Iruñeko katedrala

10.00etan, 11.00etan, 12.00etan,

Bisitak doakoak dira, eta hiru ordu hauetan egiten dira: 10:00, 11:00 eta 12:00etan. Ordubeteko iraupena dute, gutxi gorabehera. 14 urtetik gorakoak izan behar dute bisitariak, eta mugikortasun-arazorik ez izan. Oinetako lau eta erosoak eraman beharko dituzte, obrako aldamiotik ibili beharko baitute.

ERAKUSKETAK

Macla, mamua, bismuto, vicario

Oteiza Museoak

2018/07/27 - 2018/11/30

Oteiza Museoaren produkzioa, Huarte Arte Garaikideko Zentroaren partaidetza.

Lankideak: "la Caixa" Fundazioa, Nafarroako Kutxa Fundazioa, Eguesibarko Udala

eta Caniche Argitaletxea.

Oteiza Museoak "Macla, mamua, bismuto, vicario" erakusketa proiektua aurkezten du. Oteizaren obrari buruzko erakusketa interbentzio hau Karlos Martínez B. eta Javier Arbizu artistek berariaz ondu dute Altzuzako zentrorako eta Hazitegia programako lehen interbentziora izango da.

[Javier Ciga Echandi: Figurazioa eta esentzia](#)

Kultur

Bertizko Jauregia

2018/07/20 - 2018/08/20

Zorroztasun teknikoa eta ongi ikasitako ofizioa ditu oinarri bere pinturak. Hortik, Pinturara (maiuskulaz) jotzen du: orekatua, barea, nabarmenkeriarik gabea, non ia genero eta teknika guztiak baliatu baitzituen maisutasun handi-handiz. Parisko egonalditik, erabilera berriak ekarri zituen Cigak, nahiz eta bere ideal estetikora lerrotu zen nahita, hots, perfekzio errealistara zein pinturaren balio handietara.

[José Velasco Hernández-en Argazkiak \(1897-1974\)](#)

Nafarroako Errege Artxibo Nagusia

2018/07/02 - 2018/08/31

José Velasco Hernández-ek, argazkizalea eta Garraldako maisua izandakoa, XX. mendeko lehen 50 urteetan egin zituen argazkien bilduma txikia da.

Argazki gehienek familia eta ohitura gaiak aurkezten dituzte eta honako ekintzak islatzen dituzte: herriko musika taldea, eskolako belaunaldi desberdinak edo bertako familia zein pertsonai ospetsuak.

Argazki bilduma honen dohaintzaren bortzgarren urteurrena betetzen dela ospatzeko, erakusketa hau uztaila eta abuztua bitartean egongo da ikusgai Nafarroako Artxiboan. Jorge Velasco-ren 17 argazki berezi bilduko ditu eta tamaina handian eskainiko dira.

[Pablo Sarasate-Alberto Huarte: adiskidetasun baten testigantzak.](#)

Nafarroako Errege Artxibo Nagusia

2018/06/18 - 2018/09/14

Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak, Pablo Sarasateren eta Alberto Huarteren inguruko erakusketa zabaldu du, Huarte Solchaga familiak utzitako musika agiriak osatuta. Dokumentu horiek, belaunaldiz-belaunaldi babestuak izan dira familiak Iruñeako Kale Nagusian duen etxean, Huarte ikastetxearen egoitza izan zen horretan.

[José Latova. Argazkigintza arkeologikoan 40 urtes](#)

Nafarroako Museoa

2018/06/13 - 2018/09/23

Irailaren 23ra arte egongo da ikusgai argazkilari honen erakusketa zabala, 100 bideo eta argazkiz osatutakoa. Proposamen honek, argazkigintza arkeologikoaren maisu handi hau omentzen du.

José Latovak berak hitzaldi bat eskainiko du gaur bertan, 19:30tan eta Nafarroako Museoa.

Esan bezala, erakusketak Latovaren lana zeharkatzen du, Kultura Ministerioko Arkeologia sailaren zuzendariordea izaten hasi zenetik, bertan argazkilari bezala aritu zen 1976 eta 1989 bitartean, gaur egun arte. Era berean, ezin ahaztu, Latova estatu mailako lan arkeologiko nagusietan aritu izan dela.

Arma isilak gerra lasaietarako

Oteiza Museoak

2018/06/01 - 2018/09/30

Oteiza Museoak berreskuratu egin du Interpretazioak programa, Imanol Marrodan artistak Alzutzako zentroan egin duen "Arma isilak gerra lasaietarako" erakusketa-proiektuarekin.

Oteizaren obrarekiko topaketa-gune bat sortu nahi duen programako hamargarren interbentzioa da jada. Programa bera museoko bigarren solairuan garatzen da, erakusketa iraunkorrekiko solasean, eta Oteiza Museoak Eguesibarko Udalarekiko elkarlanean produzitu erakusketa-proiektu hau ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean garatuko da.

KONFERENTZIAK

Jabier Villarrealekin topaketa irekia

Huarte zentroa

Osteguna / 18.00etan

Jabier Villarreal 2017az geroztik garatzen ari den CUADERNOS DE ROMA proiektuaren inguruko gako batzuk aztertzeko topaketa irekia da "Cosa mentale, cosa sensuale. Mapas (anti)textuales y panoramas (in)voluntarios de Roma". Erromako mapen inguruan izandako esperientzia pertsonalean sortutako noraezean zentratuko da.

Jabier Villarreal EHUko irakasle titularra da, artea eta teknologia berrien integrazioan aditua.

KONTZERTUAK

Random Thinking

Viana. San Pedroko hondakinak

Osteguna / 21.00etan

Aurora eta Ángel Pérez anai-arrebek Random Thinking proiektu artistikoa osatzen dute. Beren proposamen musikal bikainak folka, bluesa eta smooth jazz-a ditu sustraian eta kritikaren eta publikoaren babesa jaso du aho batez.

Ramón García Septet

Kultur

Marcilla. Gaztelua

Ostirala / 21.00etan

"Luces del Norte" proiektuak Ramón García Lara piano-jotzaile nafarraren lehen lanari ematen dio izena. Proiektu horrek musikari horren askotariko interesak agerian jarri nahi ditu, zazpikote formatuko talde batean.

Tafallako Tubala Uxo Abesbatza

Kultur

Olivako monasterioa. Eliza

Larunbata / 19.00etan

Tubala Uxoia Abesbatza Carlos Etxeberria Alonso musikari eta konposatzaile tafallarrak sortu zuen 1985ean. 2005. urteaz gero, Laura Calvo Zalacainek gidatzen du taldea.

Bisita gidatua: Historia, arte eta espiritualtasuna Monasterioan
Larunbata, 17:00 / 45'

Monasterioko atezaindegia Prezioa: 2 €

Erreserbak: T. 948 72 50 06 biblioteca@monasteriodelaoliva.org

TAILERRAK

Arte Gaztea programa

2018/08/01 - 2018/08/31

Hurrengo hilabete osoan zehar Aizpea de Atxa, Maitane Azparren, Irene Holguin eta losune Sarasate artista gazteak haien proiektuak garatzen izango ditugu Uharte Zentroan. Egoitza artistiko hauek Nafarroako Gazteriaren eta Kirolaren Instrukzioekin elkarlanean sustatuak izan dira.

Agiriak sortzen

Sorkuntza Prozesuak Dokumentatzen” egitarauaren 3. saioa.

“Danzad, Danzad Malditos” dantza jaialdiaren eskutik, dohainik izango den tailerra gozatzeko aukera.

Ostirala, larunbata

Ordutegia: Arratsaldeko 4etatik 7tara

Non: Barañaingo Auditorioan (Nafarroako Komunitatea Kalea, 2. 31010 Barañain)

Izen ematea: bermudezbertha3@gmail.com helbidera honako informazioa bidaliz: izena, abizena, helbidea, posta elektronikoa eta telefono zenbakia

Viajes industriales de la memoria de una vida

Huarte zentroa

Ostirala / 16.00etan

Hilabete hauetan Morayma Meléndez Suárez komisariotzaren inguruko egoitzan, «Viajes industriales de la memoria de una vida: de los no-lugares como lugares acelerados y sus derivas de fatiga» ikerketa garatzen ari da. Oroitzapen pertsonal eta familiarrak gogora ekartzearen ideian lanean ihardun du, betiere mugikortasun eta krisi ekonomikoko egoeretan, artistaren beraren esperientziatik abiatuta; halaber, arlo pertsonala politikoa delako kontzeptua garatu nahi du, eta hainbat objektu familiarrekin nahiz mugikortasun arlokoekin lan egin, memoria-karga duten gailuen gisara, eta hortik ateratzen diren produkzioak ikusgai jarri.

Neurona Hormairudia

Landarte

Petilla de Aragón

Ostirala / 20.00etan

Hormairudia: Javier Landa

Petilla de Aragón denen arteko hormairudia sortzen estreinatuko da Javier Landa eta Landarte 2018ren eskutik. Herri honek, bada, herriko bi tokitan hormairudi bana eginen du Ramón y Cajal, bertako seme ospetsuanaren obra oinarri harturik.

Marras- kiek neuronak pintatzen zituen eta argazkilaria zen Nobel horren irudia hartuko dute aintzat.

Abuztuaren 6tik 11ra. Aurkezpena: abuztuaren 11, 20etan

Por favor, no me abandones

Huarte zentroa

2018/07/17 - 2018/08/07

Egilea: María Sánchez

María Sánchez da Hazitegia, Oteiza Museoak eta Uharte Zentroak gartzen duten egoitza artistikoaren bigarren deialdia egingo duen artista uztailaren 17a eta abuztuaren 7a bitartean. Programak Jorge Oteizaren pentsamentu estetikoaren inguruan ekoizpen artistikoa sustatu nahi du. María Sánchez artistak egingo duen proiektuak zera garatzea espero du: "Ikerketa esperimental bat, objektiboa, hotza, inpersonala, inongo liluragarritasun nahirik gabea, azaleko intentziorik gabea, originala edo harrigarria suertatzeko asmo gabea".

Trikuharria. Harria jasotzen

Landarte

Mañeru

2018/08/05 - 2018/08/19

Alberto Odériz nafar arkitekto eta urbanista hiru astez Mañeruarren bizikide izanen da bertan trikuharri bat altxatzeko.

Abuztuaren 5etik 19ra

Arte plastikoak: Alberto Odériz

Ikerketa proiektuak garatzeko egoitza

Huarte Arte Garaikideko Zentroa

2018/04/30 - 2018/09/30

Komisariotzaren inguruko ikerketa proiektuak garatzeko bi egoitza deialdi luzatzen ditu Uharte Zentroak (bata, lekuko agenteei zuzendua, eta bestea, bertakoak ez direnentzat). Helburua, praktika honen alderdiak Nafarroan zehar barreiatzea da.

Toisoiaren ebasketa, escape room-ean

karlismoaren Museoan (Estella-Lizarra)

2018/05/18 - 2018/10/14

Karlismoaren Museoak dei egiten dizue parte hartzera Toisoiaren ebasketa, escape room-ean. Museoen Nazioarteko Egun eta Gauaren karietara eginen da, 2018ko maiatzaren 18an, eta irekita egonen da 2018ko urriaren 10era arte.